

## JUAN GARAY

---

### AMERIKETARA

*Amabost urte ebazala, Orduña bere erritik urten, eta Ameriketara abiatu zan, bere o saba Pedro Zarate'ren lagun.*

*Peru'n egin ebazan lenengo urteak; eta ango lurraldetan gudu ta gudu ibilli ondoren, kapztan izatera eldu zan laster.*

*Andik Bolibia'ra jatsi, eta Santa Cruz izeneko erria eraiki eban, Amazonia'ko lurralde gaiñetan. Sei urte bizi izan zan berton; eta abere ugariz aberastu ebazan inguruko zabaldu ederrak.*

### SANTA FE

*Bere kontura eukazan eunda berrogeitamar gudarien buru jarri, ta beruntz, Atlantik itsasoruntz abiatu zan mendiz bera, ta sekulako basobaltz eta zingirak igarota, «Rio de Plata» bazterretara eldu zan.*

*Eta Santa Fe, erria eraiki eban, ango leku ederrenetarikoan, Eta uri barri oil bere bizilekutzat arturik, ara ta ona ibilliaz, beste erri batzuk bere eraiki zituan.*

### GUDARI ADORETSUA

*Itsas-Ontzi bateau sarturik, ibaian bera joiazala, ekatx gogor batek jo, ta ankaz gora joan ziran Garay ta bere lagunak.*

*Doi-doi ertzera urten, eta indarbarritzen ziarduen bitartean, ona basati-multzO bat eurakana, zarata baLEAN.*

*«Txarruak» eritxen inditar gogorrak ziran.*

*Zapikan buruzagi Ospetsua etorran zazpireun basagizon areen buru, ta gezi ta txabalinaz eras<sup>o</sup> eutseen.*

*Garai' ez mutillak eure- zaldietara igon, eta naiko neke ta Ian,*

*asi ziran arerioaren erasoari eutsi gurean.*

*Ontan, gezi batek ankaz gora bota eban Garay'ren zaldia. Onek, orduan, lurretik arin altzau, eta lagun baten beste zaldira igorik, aurrera eroan eban burruka gogorra.*

*Alako baten, gezi barri bat sartzen jako bular-gaiñean. Geure buruzagiak, inkeak atera barik, eskua luzatu, ta zast!, being<sup>o</sup> batean, ateratzen dau gezi madarikatua, eta aurrera doa sekulako abiadura biziz.*

*Basatiak aren txistua ta amofilm ikusi, eta amor emonda igesi joan ziran.*

### BUENOS AIRES

*Gera, Iralak Paraguay'n len erakitako Asuncion uriburura igon, ta dei egiten dau erriko plazan, Argentina'ko lurralderako jente-eske.*

*Gizaki asko aurkeztu, ta berealako bateau eratzen dau bere txangoa.*

*Milla zaldi, berreun bei, basteun txarri, auntz eta ardi batu..., ta lurrez bidaltzen dauz, berrogei gudarien zainpean.*

*Bera, bitartean, bederatzi itsasantzi gertau; iskilloz, jangaiz eta aziz leparaiño bete..., ta uren abiatzen da, andik illabete baten bam., Oñezkaak baiña len eldu ziran; eta onek iñoiz eldu izan ziranean, guztiak batu, eta Buenos Aires, uri andi ori eraikitzen asi ziran.*

*Pedro Mendatza'k eraikita egoan, 43 urte aurretik; baiña leku txarrean, eta ganora barik; orregaitik laster galdu tan basatien eskuetan.*

*Leku oba ta ziurrago aukeratzen datt orain Garay'k. Sartu lurrean mbar bat, zuzenbide ezaugarri lez;*

*astindu lau aizetara bere ezpatea; ebagi lurreko bedar aunditua... eta ona gure Garay bizkarra lurralde barriaren jauna.*

*Laster altzau ebazan uri barriaren orma ta etxeak. Baita arrejiz inguratu, eta gaztelu andi batez indartu be. Ez can, ez, uri barri au jausi; ez eta arerioen eskuetara etorri bere, 1580 urtea zan.*

### JENDETZAILLE

*Onen ondoren, Buenos Aires egoaldera zabaltzen dan lurraldea ikertu ta jazten alegindu zan. Pampa'ko zabaldiak zearkatu ebazan; Tandil'eko mendikate izugarriak igon ebazan; eta beko itsasertz otzetan millaka «faca» **bereizi** orrek ikusi ebazan.*

*Lur barriak ikertu ondoren, beragaz ekarri ebazan abereak bota ebazan inguruko zabaldietara; eta zarroetako garau-aziak erein landa gizenetan.*

*Asko ugaritu ziran, gerora, garau ta abereok. Argentina da, gaur egun, abere ta garauz munduko lurralderik aberatsanetarikoa. Buenos Aires, munduko urik andienetarikaa.*

### GIZON JATORRA

*Naz eta lurralde asko irabazi, ta esku artean ondasun asko erabili, asO estu bizi izan zan Garay. Alango estualdi larri batean, besterik ez-eta, bere andrearen saiñekoak saldu bear izan ebazan.*

*Berari buruz esan eban Fidel Lopez Argentina'ko edeslariak: «Eta auxe da Garaitar joanes'engaitik esan geinkena, eta ez da gitxi: gizon zuzena izan zan beti, biotz onekoa; Amerikeratu zan kapitani biotz-bera ta adikorrena.*

**URKIOLA'k**